*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**8534**

**665/2009 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa, Donemiliagako udal planeamenduko arau subsidiarioen berraztertzea aldaketekin behin betiko onartzen eta zati bat ezeztatzen duena.**

### I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2009ko ekainaren 5ean Donemiliagako Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 10523) jaso zen. Ofizio horren bidez, udal arau subsidiarioen berrazterketaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion. 2/2006 Legea indarrean jarri baino lehen eman zen hasierako onarpena, eta Udalak, 2007ko abuztuaren 9ko erabakiaren bidez, espedientea aurreko legediaren eduki eta zehaztapenen arabera onestea erabaki zuen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 2. Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki.

Bigarrena.- Espedientea osatzen duten dokumentuen helburua da indarrean dauden Arau Subsidiarioak eta Arau Subsidiarioen gainean orain arte onartutako aldaketa guztiak ikuskatzea. Espedientea aztertuta, hurrengo funtsezko egitateak ondorioztatzen dira tramitatzerakoan:

A.- Udal planeamenduari buruzko irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak egindakoan, 2002ko abenduaren 3an udalbatzak, Hirigintza Planeamenduaren Araudiak 125. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hilabetez jarri zuen espediente hori jendaurrean, espediente horri buruzko iragarkiak argitaratuz ALHAOn (2 zk.), 2003ko urtarrilaren 8an, udaletxeko iragarki taulan eta El Correo egunkarian, 2003ko urtarrilaren 10ean.

Jendaurrean erakutsi zen bitartean aurkeztutako iradokizunak eta bestelako aukerak aztertu ondoren, udalbatzak 2003ko azaroaren 4ko bileran arau subsidiarioetako irizpideak, helburuak eta konponbide nagusiak berretsi zituen.

B.- Udalbatzak, 2006ko ekainaren 6ko aparteko bilkuran, planeamenduko arau subsidiarioak berraztertzeko espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere. Horretarako iragarki bana argitaratu zen ALHAOn (2006ko ekainaren 16koa, 67. zenbakia), El Correo egunkarian (2006ko ekainaren 22koa), eta udaletxeko iragarki taulan. Epe hori luzatu egin zen Udalaren 2006ko uztailaren 13ko erabakiaren bidez, eta horren iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2006ko abuztuaren 16koa, 99. zenbakia), El Correo egunkarian (2006ko abuztuaren 3koa), eta udaletxeko iragarki taulan.

C.- Jendeari erakusteko epe barruan alegazioak aurkeztu ziren; testua idatzi duen taldeak horiei buruzko txostena eman ondoren, udalbatzak ebatzi zituen.

Zenbait alegazio onartu eta gero, horien ondorioz egindako aldaketak ez zirenez garrantzitsutzat jo, 2008ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ikuskapen espedientea behin behinean onartzea erabaki zen. Hor ere, garrantzitsutzat jo ez ziren aldaketa batzuk sartu ziren.

Hirugarrena.- Udalak 2007ko abenduaren 10aren eta 2008ko ekainaren 13aren artean –jendaurrean erakusteko epeetatik kanpo– jasotako sei alegazio bidali ditu, Foru Aldundi honetan antzeko baldintzetan jasotakoekin batera.

Laugarrena.- 183/2003 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedurari buruzko ingurumen eraginaren behin betiko txostena egin zuen 2009ko ekainaren 22an.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**8534**

**ORDEN FORAL 665/2009, de 2 de diciembre, de aprobación definitiva con modificaciones y denegación parcial de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de San Millán.**

### I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 5 de junio de 2009 y número de registro de entrada 10523 se recibió un oficio del Ayuntamiento de San Millán mediante el cual se remitía el expediente de Revisión de las Normas Subsidiarias Municipales con el fin de que le fuera concedida su aprobación definitiva si procediera. Su aprobación inicial fue anterior a la entrada en vigor de la Ley 2/2006, optando el Ayuntamiento, por acuerdo de 9 de agosto de 2007, por aprobar el expediente conforme a los contenidos y determinaciones de la legislación anterior, según lo dispuesto en la Disposición Transitoria 2ª de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

Segundo.- Los documentos que componen el expediente tienen por objeto la Revisión de las Normas Subsidiarias vigentes y todas las modificaciones de Normas Subsidiarias aprobadas hasta la fecha y, de su examen, se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A.- Una vez elaborados los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales del Planeamiento, la Corporación procedió en fecha 3 de diciembre de 2002, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 125 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico, a su publicación, por un periodo de un mes, en el BOTHA nº 2, de 8 de enero de 2003, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, así como en el periódico El Correo de 10 de enero de 2003.

Analizadas las sugerencias y alternativas formuladas durante el plazo de exposición al público, el Ayuntamiento, confirmó los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales de las Normas Subsidiarias en Sesión de 4 de noviembre de 2003.

B.- En sesión extraordinaria de fecha 6 de junio de 2006, el Ayuntamiento acordó aprobar inicialmente el expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento y someterlo a información pública por el plazo de un mes, haciéndose efectivo mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA número 67 de 16 de junio de 2006, en el periódico El Correo del día 22 de junio de 2006, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, periodo que fue ampliado, por acuerdo municipal de 13 de julio de 2006, con un nuevo periodo de exposición pública, que fue anunciado en el BOTHA 99 de 30 de agosto de 2006, en el periódico El Correo de 3 de agosto de 2006 y en el tablón de anuncios del ayuntamiento.

C.- Dentro del plazo de exposición al público se presentaron diversas alegaciones que, tras ser informadas por el equipo redactor fueron resueltas por la Corporación.

Considerando que las modificaciones producidas por la estimación de varias alegaciones no eran sustanciales, se acordó aprobar provisionalmente el expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento en Pleno de fecha 25 de noviembre de 2008, introduciendo en el mismo algunas modificaciones consideradas asimismo no sustanciales.

Tercero.- El Ayuntamiento remite seis alegaciones recibidas entre el 10 de diciembre de 2007 y 13 de junio de 2008 fuera de los plazos de exposición al público, al igual que las recibidas, en similares condiciones, directamente en esta Diputación Foral.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto 183/2003, el Servicio de Medio Ambiente y Diversidad de la Diputación Foral de Álava emitió en fecha 22 de junio de 2009 el Informe Definitivo de Impacto Ambiental correspondiente al Procedimiento de Evaluación Conjunta de dicho Impacto

Bosgarrena.- Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek hirigintza arloko zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren esku uzteari buruzko martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren Eranskinaren a) idatzzatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedienteari buruzko irizpena eman zuen, urriaren 1ean egindako 4/2009 batzarrean.

Seigarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluko 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak azaroaren 24ko 9/2009 bilkuran espediente honen berri eman zuen.

**II.- OINARRIAK**

**Lehenengoa.- Dokumentuaren hedadura eta izaera.**

Espediente horrek Donemiliagan indarrean dauden udal planeamenduko arau subsidiarioak berraztertzea du helburu; hain zuzen ere, 1993ko ekainaren 15eko 320 zk.dun Foru Aginduaren bidez behin betiko onartutakoak eta egun arte arau subsidiario horiei egindako xedapen aldaketak.

Espediente hau Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea baino lehenagokoa den arren, bere azterketa hurrenkera honetan azalduko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena, Egiturazko antolamendurako zehaztapenak eta Antolamendu xehatuko zehaztapenak.

**Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ezarritako aldaketak.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen 4/09 bilerako ziurtagiriaren ondorioz, espedientea behin betiko onesteko bi aldaketa hauek egin beharko dira:

A.- Galarretako SUS-R.2 lurzoruaren sailkapena kendu.

B.- Narbaizako SUS-R.1 sektorearen eraikigarritasuna ondoko hauei egokitu: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77.4 artikuluan ezarrita dagoena (bigarren xedapen iragankorra zuzenean aplikatuta), artikulu horretan ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna lurzoru metro karratu bakoitzeko 0,25 sabai metro karratu dela; eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren “Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-G5. Hirigintzako garapenik gabeko gune berriak finkatzea” izeneko fitxan mota horretako herriguneetarako eskatzen den hektareako 15 etxebizitzako dentsitatea.

**Hirugarrena. Egiturazko antolamendurako zehaztapenak.**

**I. Hiri lurzoruaren edo lurzoru urbanizagarriaren sailkapena eta antolamendua.**

A.- Hiri azpiegitura eta zerbitzuei buruz aurkeztutako dokumentazioari dagokionez adierazi behar da dokumentuak horiei dagokionez ez daukala beharrezkoa den zehaztasuna, Hirigintza Planeamenduko Araudiaren 25. artikuluak eta 1976ko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateginaren 39. artikuluak eskatzen duten bezala. Ondorioz, lurzoruaren sailkapenari dagokionez legedia betetzen den definitzea zaila da. Hutsune hori sistema orokorren sarean nahiz tokiko sistemen sarean agertzen da

B.- Hiri lurzoruaren sailkapenak izaera arautua dauka. Horrek zera esan nahi du: lurzoru batek, hiri lurzoru izateko, lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 8. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu: a) lurzatiaren ondoondoan ibilgailuetarako sarbide publikoko, uren hornidurako, saneamenduko eta argindar hornidurako zerbitzuak edukitzea, b) zerbitzu horiek dauden eraikinak eta etorkizunekoak artatzeko nahikoak izatea eta c) hiri bilbean integratuta egotea.

Gauzak horrela, aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen da Adanako UENC-AD-1, Okarizko UENC-OX-1 eta Durrumako UENC-SR-1 egikaritze unitateek ez dituztela aipatutako baldintzak betetzen eta horregatik sailkapena kendu beharko zaiela eta unitate horiek lurzoru urbanizaezinean edo lurzoru urbanizagarrian sartu beharko direla.

Quinto.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencias de Servicios de las Instituciones Comunes a la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 4/2009 del día 1 de octubre.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 9/2009, de 24 de noviembre.

**II.- FUNDAMENTOS**

**Primero.- Alcance y naturaleza del documento.**

El presente expediente constituye la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de San Millán vigentes, aprobadas definitivamente por Orden Foral nº 320 de 15 de junio de 1993 y de las modificaciones puntuales de Normas Subsidiarias aprobadas hasta la fecha.

A pesar de que este expediente es anterior a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la exposición de su análisis va seguir este orden: Informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, Determinaciones de ordenación estructural y Determinaciones de ordenación pormenorizada.

**Segundo.- Sobre las modificaciones impuestas por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.**

La certificación de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, de su sesión 4/09, ha condicionado la aprobación definitiva del expediente a que se introduzcan en él estas dos modificaciones:

A.- Desclasificar el Sector SUS-R.2 de Galarreta.

B.- Adaptar la edificabilidad del Sector SUS-R.1 de Narbaiza a la establecida en el artículo 77.4 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo (por aplicación directa de su disposición transitoria segunda) que fija una edificabilidad mínima de 0,25 $m^2t/m^2s$; y a la densidad de 15 viv/ha exigida para este tipo de núcleos de población en la ficha “Regulación de nuevos crecimientos RNC-G5. Consolidación de los núcleos nuevos sin desarrollo urbanístico” del PTP de Álava Central.

**Tercero. Sobre las determinaciones de ordenación estructural.**

**I. De la clasificación y ordenación del suelo urbano o urbanizable.**

A.- Respecto a la documentación presentada sobre las infraestructuras y servicios urbanos hay que indicar que el documento carece de la necesaria precisión de los mismos, tal y como exigen los artículos 25 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico y 39 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976, con la consiguiente dificultad para definir el cumplimiento de la legislación en materia de clasificación del suelo. Laguna que se manifiesta tanto en la red de sistemas generales como en los locales

B.- La clasificación del suelo urbano tiene carácter reglado. Ello significa que para que unos terrenos puedan tener la condición de urbanos deben cumplir los requisitos exigidos en el artículo 8 de la Ley 6/1998 de 13 de abril, sobre régimen del suelo y valoraciones: a) poseer a pie de parcela los servicios de acceso rodado público efectivo, abastecimiento de aguas, saneamiento y suministro de energía eléctrica, b) que tales servicios sean de características adecuadas para servir las edificaciones existentes y futuras y c) se integren en la malla urbana.

Así las cosas, de la documentación aportada se desprende que las unidades de ejecución UENC-AD-1 de Adana, la UENC-OX-1 de Okariz y la UENC-SR-1 de San Román de San Millán, por no cumplir los requisitos mencionados, deberán ser desclasificados y ser incorporados al suelo no urbanizable o al suelo urbanizable.

C.- Beste alde batetik, Uraren Euskal Agentzia-URAk egindako txostenean hiri lurzoruko eremu batzuen sailkapen eta kalifikazioari eragiten dioten edo eragin ahal dioten ohar batzuk egin dira. Alde horretatik zera proposatzen du:

1.- Mezkiako MZ-2 eta MZ-1 egikaritze unitateen dokumentazio grafikoan dauden ubideak irudikatzea, dagozkien atzerapenekin.

2.- Aspuruko AS-2 eremuan eta Narbaizako NB-4 eta SUS-R-1 eremuetan uholdeak izateko arriskuari buruzko azterlana egin dadila eskatzea.

3.- "C baldintza gainjarria: uholde arriskuko eremuak" aztertzen dituen 190. artikuluan lurzorua uholde arriskuaren arabera erabiltzeko irizpideak, ebazpen honen II. eranskinean agertzen direnak txertatzea. Aldundi honek ebazpen honetan txertatu ditu nahitaez betetzekoak izateko legezko berrespenik eduki ez arren.

D.- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren txostena zati batean bat dator aurrekoarekin, Aspuruko AS-2 egikaritze unitatearen eta Barriako B-1 egikaritze unitatearen sailkapena kentzea eskatzen duelako, IEBEko azterlanean Natura 2000 Sarearen gaineko eraginen azterlan zehaztua agertzen ez den bitartean. Horrela, eragina onargarria den ala ez zehaztu ahal izango da, eta onargarria izanez gero, planaren ebaluazio egokia egin ahal izango da 92/43/CEE zuzentarauaren baldintzen arabera.

E.- Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak bere txostenean errepideen foru sareko zeharbideak zehaztasun handiagoz defini daitezela eskatzen du. Alde horretatik zera proposatzen du:

1.- Adanari dagokionez.

a.- A-3110 errepidean saihesbide edo ingurabide bat dagoenez, Foru Arauaren arabera, eraikinen muga lerroa 100 m-ra ezarriko da galtzadaren kanpoko ertzetik horizontalean neurtuta, saihesbidearen luzera osoan. Beraz, ingurabidearen eta antzinako zeharbidearen artean aurreikusita dauden garapen berriak desagerrarazi beharko dira, zehazki UENC-AD-1, hori lurzoru urbanizaezin izan beharko baita.

b.- Ez da baimenduko errepidetik inolako sarbide zuzen berririk egitea, saihesbidearen luzera osoan.

2.- Barriari dagokionez.

Arabako Errepideen 2004-2015 Plan Integralaren arabera, Barriatik hurbil igarotzen den A-3012 errepidearen zatia ez da hiri tartea, ezta saihesbidea ere. Hortaz, errepidearen ondoko R/6 bizitegi aldeak eraikinaren lerroa zuzendu beharko du eta galtzadaren kanpoko ertzetik 25 m-ra ezarri beharko du. Ez da baimenduko A-3012 errepidetik inolako sarbide berririk egitea.

3.- Bikuñari dagokionez.

Eraikinaren lerroa argi zehaztu beharko da A-4114 errepidearen bi aldeetan, errepide horren azken tartean dauden R6-2 bizitegi lurzatietan. Galtzadaren kanpoko ertzetik 25 m-ra ezarri beharko da.

4.- Egilatzi dagokionez.

A-4158 errepidearen ezkerrean dagoen hiri lurzorua zabaltzean errepidearen jabari publikoaren aldea, lurzatia ixteko lerroa eta eraikinaren lerroa 6,5 m, 8,5 eta 11,5 m-ra markatu behar dira, hurrenez hurren.

5.- Galarretari dagokionez.

UENC-G-2 egikaritze unitatean eraikinaren lerroa A-3012 errepideko galtzadaren kanpoko ertzetik 25 m-ra ezarriko da.

6.- Mezkiari dagokionez.

Planoetan ADIFen Madril-Hendaia lineako 519/830 km-an, Mezkian dagoen trenbide pasagunea kentzeko eraikitze proiektua –gaur egun eraikitzen ari dena– agertu beharko da. Proiektu horrek A-4007 errepidearen trazadura eta bere babes aldeak aldarazten ditu.

7.- Narbaizari dagokionez.

Argi agerrarazi beharko dira eraikinaren lerroak eta lurzatiaren itxitura lerroak finkatu gabeko hiri lurzoruan eta aurrealdea A-3012 erre-

C.- De otra parte, el informe emitido por URA, Agencia Vasca del Agua, ha efectuado unas observaciones que afectan o pueden afectar a la clasificación y calificación de varios ámbitos del suelo urbano. En este sentido propone:

1.- Representar en la documentación gráfica de las unidades de ejecución MZ-2 y MZ-1 de Mezkia las regatas existentes con sus retiros correspondientes.

2.- Demandar que en las áreas AS-2 de Aspuru y NB-4 y SUS-R-1 de Narbaiza se realice un estudio de inundabilidad.

3.- Incluir en el artículo 190 referido a los "Condicionante superpuesto C: Áreas inundables" los criterios de uso del suelo en función de su grado de inundabilidad, contenidos en el Anexo II a esta resolución, que esta Diputación incorpora a esta resolución a pesar de que tales criterios no han tenido ningún refrendo legal que los haga de obligado cumplimiento.

D.- El informe emitido por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental coincide en parte con el anterior, pues demanda la desclasificación de las UE AS-2 de Aspuru y B-1 de Barría, en tanto en cuanto el Estudio de ECIA no aporte un análisis detallado de los efectos sobre la Red Natura 2000, de modo que sea posible determinar si la afección es o no apreciable, y en caso afirmativo, someter el plan a una adecuada evaluación en términos de la Directiva la 92/43/CEE.

E.- La Dirección de Obras Públicas y Transportes en su informe solicita que se definan con mayor precisión las travesías de la red foral de carreteras. En este sentido propone que:

1.- Con respecto a Adana.

a.- Al existir una variante o carretera de circunvalación en la carretera A-3110, de acuerdo con la Norma Foral, la línea límite de edificación se establece a 100 m. medidos horizontalmente a partir de la arista exterior de la calzada en toda la longitud de la variante. Deberán eliminarse, por tanto, los nuevos desarrollos previstos entre la circunvalación y la antigua travesía, en concreto la UENC-AD-1 que deberá ser suelo No Urbanizable.

b.- No se permitirá ningún nuevo tipo de acceso directo desde la carretera en toda la longitud de la variante.

2.- Con respecto a Barría.

De acuerdo con el Plan Integral de Carreteras de Álava 2004-2015, el paso de la carretera A-3012 en las proximidades de Barría no se trata ni de un tramo urbano ni de travesía, por lo que la zona residencial R/6 colindante a la carretera, deberá corregir su línea de edificación que se fijará a 25 m. de la arista exterior de la calzada, no permitiéndose la creación de ningún tipo de acceso nuevo desde la carretera A-3012.

3.- Con respecto a Bikuña/Vicuña.

Deberá especificarse claramente la línea de edificación en ambas márgenes de la carretera A-4114 en las parcelas residenciales R6-2 situadas en el tramo final de la citada carretera, debiendo situarse a 25 m. de la arista exterior de la calzada.

4.- Con respecto a Eguilaz.

En la ampliación del suelo urbano situada en la margen izquierda de la carretera A-4158 se ha de marcar la zona de dominio público de la carretera, la línea de cierre de parcela y la línea de edificación a 6,5 m, 8,5 y 11,5 m respectivamente.

5.- Con respecto a Galarreta.

En la Unidad de Ejecución UENC-G-2 la línea de edificación se establecerá a 25 m. de la arista exterior de la calzada de la carretera A-3012.

6.- Con respecto a Mezkia.

Deberá reflejarse en los planos el "Proyecto de Construcción para la supresión del paso a nivel en la línea Madrid-Hendaya de ADIF, p.k. 519/830, en Mezkia", actualmente en construcción y que modifica el trazado de la carretera A-4007 y sus zonas de protección.

7.- Con respecto a Narbaiza.

Deberán reflejarse claramente las líneas de edificación y de cierre de parcela en suelo urbano no consolidado y en suelo urbanizable con

pidera begira duen lurzoru urbanizagarrian, Arabako Errepideen 2004-2015 Plan Integralean aurreikusitako sekzioekin bat etorriz.

8.- Durrumari dagokionez.

Argi agerrarazi beharko da eraikinaren lerroa Durruma zeharkatzen duen A-3138 errepidearen hiri tartean, proposatutako sekzioarekin bat etorriz, errepidearen ardatzetik 13,5 m-ra.

9.- Araia-Donemiliagako industrialdeari dagokionez.

a.- A-3012 errepidearen jabari publikoko aldea mugatik kanpo utzi beharko da, eta Bide Komunikazioen Sistema Orokorrean sartu beharko da.

b.- A-3012 errepideari dagokion zortasuneko aldea agerrarazi beharko da. Zona hori jabari publikoko aldearen mugatik 5 m-ra ezarri beharko da. Zortasuneko aldea eremuari lotutako azaleren ondorioetarako zenbatu ahal den arren, aldarazten edo beste helburu batzuetarako erabilarazten duen jarduerarik ezin izango da egin bertan.

10.- Okiturriko industrialdeari eta Salsamendiko Lurreko Azpiegituren Plan Bereziari dagokienez:

"A-3020 eta A-3138 errepideen arteko elkargunea biribilguneak ezarriz berriz antolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua" agerrarazi beharko da. Proiektu hori Diputatuen Kontseiluaren 2005eko azaroaren 15eko erabakiaren bidez behin betiko onetsi zen. Erabaki horrek indarreko hirigintza planeamendua aldarazi zuen, Errepideei buruzko Foru Arauaren 18. artikuluaren –"Arabako Errepideen Plan Integralaren izaera loteslea"– arabera.

11.- Uribarri-Jauregiri dagokionez.

Planoetan behar bezala agerrarazi beharko dira eraikinaren lerroa eta lurzatia ixteko lerroa, A-4139 errepideari dagokionez, Arabako Errepideen Plan Integralean finkatu gabeko hiri lurzorurako aurreikusitako sekzioarekin bat etorriz. Modu horretan, errepidearen mugakideak diren R6-2 sektoreetan distantzia horiek 11,00 metro eta 8,00 metro izango dira hurrenez hurren, errepidearen ardatzetik neurtuta.

12.- Zuhatzu Donemiliagari dagokionez

a.- Errepidea eta bere jabari publikoko aldea hiri lurzoruaren mugatik atera beharko dira, eta Bide Komunikazioen Sistema Orokorrean sartu beharko dira.

b.- A-3022 errepidea herriaren ondoko tartean hiri tartea edo zeharbidea ez denez, eraikinaren lerroa galtzadaren kanpoko ertzetik 25 m-ra ezarri da. Hortaz, errepidearen ondoko bizitegirako R6-2 eremu berriak desagerrarazi beharko dira, horietan argi eta garbi ezin delako eraiki.

F.- Beste alde batetik, Nekazaritza Sailaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak adierazi duenez, Landa Bideen Sarean Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeari buruzko 6/1995 Foru Arauan ezarrita dagoena aplikatuko da.

Alde horretatik, administrazio batzarrei bideek etorkizuneko hirigintzako jardueren ondorioz jasan ditzaketen eraginen berri eman beharko zaie. Kasu horietan Udalek zehaztuko dute eraginpeko tarteak Bideen Erregistrotik kendu behar diren Arauak onestean edo egikaritze unitateak garatzean. Horrenbestez, Aldundiak eragina sortu duen entitateari agindeia egin ahal izango dio, bidean egindako konponketen ondorioz eguneratutako zenbatekoak itzul ditzan, hark emandako kopurua entitate titularrean berrinbertitzeko.

**II. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua.**

A.- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren txostenean azaltzen denez, EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialeko II. taldean dagoen "Bikuñako aintziratxoa" behar bezala mugatu beharko da.

B.- Foru Aldundiko Ingurumen Sailak, bere ingurumen eraginaren behin betiko txostenean, udalerriaren ingurumen eta paisaia balioen babes eta zaintza bermatzen ez direla adierazten du. Ondorioz zera proposatzen du:

frente a la carretera A-3012, de acuerdo con las secciones previstas en el Plan Integral de Carreteras de Álava 2004-2015.

8.- Con respecto a Durruma/San Román de San Millán.

Deberá reflejarse correctamente la línea de edificación en el tramo urbano de la carretera A-3138 a su paso por San Román de San Millán, de acuerdo con la sección propuesta, a 13,5 m. del eje de la carretera.

9.- Con respecto al Polígono Industrial de Araia/San Millán.

a.- Deberá excluirse de la delimitación la Zona de Dominio Público de la carretera A-3012, la cual debe formar parte del Sistema General de Comunicaciones Viarias.

b.- Deberá representarse la Zona de Servidumbre correspondiente a la carretera A-3012, la cual se situará a 5 m. del límite de la Zona de Dominio Público. Aunque la Zona de Servidumbre pueda ser computable a efectos de superficies afectadas al ámbito deberán mantenerse libre de cualquier actuación que suponga su alteración o uso para otros fines.

10.- Con relación al Polígono Industrial de Okiturri y al Plan Especial de Infraestructuras Terrestres de Salsamendi:

Deberá reflejarse el "Proyecto de Construcción de reordenación y mejora de la intersección entre las carreteras A-3020 y A-3138 mediante la implantación de glorieta", aprobado definitivamente mediante Acuerdo nº 1045 del Consejo de Diputados, de 15 de noviembre de 2005, que obliga a la modificación del Planeamiento Urbanístico vigente, de acuerdo con el Art. 18.- "Carácter vinculante del Plan Integral de Carreteras de Álava" de la Norma Foral de Carreteras.

11.- Con respecto a Ullibarri-Jauregi/Uribarri-Jauregi.

Deberá reflejarse correctamente en los planos la línea de edificación y de cierre de parcela con relación a la carretera A-4139, de acuerdo con la sección prevista en el PICA para suelo urbano no consolidado, de forma que en los sectores R6-2 colindantes con la carretera estas distancias serán, respectivamente, de 11,00 metros y 8,00 metros medidos desde el eje de la carretera.

12.- Con respecto a Zuazo de San Millán/Zuhatzu Donemiliaga.

a.- Deberá excluirse la carretera y su Zona de Dominio Público de la delimitación del suelo urbano, debiendo formar parte del Sistema General de Comunicaciones Viarias.

b.- Dado que la carretera A-3022 no constituye ni tramo urbano ni travesía su paso junto a la localidad, la línea de edificación se establece a 25 m. de la arista exterior de la calzada, por lo que deberán eliminarse los nuevos ámbitos residenciales R6-2 junto a la carretera, ante la imposibilidad manifiesta de edificar en los mismos.

F.- De otra parte, el Servicio de Desarrollo Agrario del Departamento de Agricultura manifiesta que en la Red de Caminos Rurales será de aplicación lo estipulado en la Norma Foral 6/1995, para el uso, conservación y vigilancia de los caminos rurales del Territorio Histórico de Álava.

En ese sentido, las juntas administrativas deberán ser informadas de las afecciones que puedan sufrir los caminos debidas a las futuras actuaciones urbanísticas. En estos casos los ayuntamientos determinarán si los tramos afectados deberán ser excluidos del Registro de Caminos al aprobarse las Normas o al ser desarrolladas las unidades de ejecución, de manera que la entidad causante de la afección pueda ser requerida por la Diputación para el reintegro de los importes actualizados por las reparaciones habidas en el camino, a fin de reinvertir en la entidad titular la parte correspondiente que ésta hubiera aportado.

**II. De la ordenación del suelo no urbanizable.**

A.- Según se expresa el informe de la Dirección de Biodiversidad y participación Ciudadana del gobierno Vasco deberá delimitarse correctamente la "Lagunilla de Vicuña incluida en el Grupo II del PTS de Zonas Húmedas de la CAPV.

B.- El Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral en su informe definitivo de impacto ambiental manifiesta que no se garantizan la protección y la conservación de los valores ambientales y paisajísticos del municipio. En consecuencia propone la:

1.- Proposatutako zonifikazio orokorra berrikustea, lurzoru urbanizaezina osatzen duten askotariko lurzoruen benetako ezaugarri eta izaerei egokitzeko. Eta aurreko horren ildotik, lurzoru horietan ezinbestean onartu behar diren erabilerak proposatzea.

2.- IEBEko azterlanean Arau Subsidiarioetan aurreikusten diren neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsaziozkoak nahiz ingurumena lehengoratzeko eta hobetzeko jarduketak agerrarazteko dokumentazio kartografikoa sartzea, 183/2003 Dekretuan ezarrita dagoena betetzeko.

3.- Paisaia Berezi eta Bikainak Gainjarritako Baldintzatzat hartzea.

4.- Igarobide Ekologikoak Gainjarritako Baldintzatzat hartzea.

5.- Lurzoru urbanizaezineko Baldintza Gainjarrien planoetan Vasco-Navarro trenaren bide zaharreko Ibilbide Berdearen trazadura sartzea, Uribarri-Jauregiko urmaelaren eta Gereñuko mendatearen arteko tartean.

6.- Ingurumena Zaintzeko Plana egokitzea planeamenduko dokumentuen IEBEko azterlan bateratuak ikuskatzeko programetan 183/2003 Dekretuaren arabera agertu behar diren edukietara.

C.- Mendi Zerbitzuak herri onurako mendiei buruzko txostena egin du. Horren bidez alderdi lotesle batzuei buruz zera adierazi du:

1.- Narbaizako hirigunearen hiri lurzoruaren mugaketaren arabera, “Monte Alto y Ascorzana” izeneko herri onurako 630 zk.dun mendia inbaditu da hegoaldeko muturrean “herri erabilera eta jabariko espazio libre” gisa kalifikatutako lurzati batean, eta horregatik mugaketa horretatik kanpo utzi beharko da.

2.- Toki erakundeen jabetzen barruan baso jabari publikoaren katalogazioa duen azaleraren zati handi bat –luberritu beharreko azalera ere bai– 4. kategorian (“Nekazaritza-abeltzaintza eta landazabal eremua”) sailkatu dela ikusi da eta “Baso aldea” izeneko kategorian sailkatu behar da, araubide juridikoaren arabera “Babes Bereziko” edo “Ingurumen Hobekuntzako” aldeetan sailkatu behar ez denean.

D.- Errepideen Foru Sareari dagokionez honako hau hartuko da kontuan:

1.- Lurzatien itxiturak distantzia hauetan jarriko dira:

a.- Lehentasunezko intereseko sarea: galtzadaren kanpoko ertzetik 25,00 m. baino harago

b.- Oinarrizko sarea: galtzadaren kanpoko ertzetik 12,50 metro baino harago

c.- Eskualdeko sarea: galtzadaren kanpoko ertzetik 10,00 metro baino harago

d.- Tokiko sarea: galtzadaren kanpoko ertzetik 8,00 metro baino harago

e.- Auzo sarea: galtzadaren ertzetik 8,00 metro baino harago.

Kasu guztietan ere, sarea edozein dela ere, jabari publikoaren gunetik kanpo egon beharko dute lurzatiaren itxierek; beraz, horretatik eta gorago zerrendatu diren distantzietan dagokionetik ateratzen direnen arteko baldintza murriztaileena errespetatu beharko da. (Jabari publikoaren gunea honelaxe zehaztuko da: Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren arabera hain zuzen).

2.- Hirigintza Araudiko bide komunikazioen babes alderdian baimendutako erabilera eta jardueren barruan, espresuki eta argi eta garbi ezarri beharko da erabilera eta jarduera horietarako baimena emateko Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua bete beharko dela, foru arau horretan kasuan kasuko zaintza gune bakoitzerako ezarrita dagoenari jaramon eginda, babes gunea Foru Sareko errepide bati buruzkoa denean.

3.- “Lurraldearen Egitura Orokor eta Organikoaren” planoetan Foru Sareko errepide bakoitzaren alde banatan dauden eraikinen muga lerroak agerrarazi beharko dira, Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak ezartzen duenaren arabera.

1.- Revisión de la zonificación global propuesta a fin de adaptarla a las reales características y naturaleza de los diversos terrenos que componen el suelo no urbanizable. Y en línea con lo anterior, proponer los usos que ineludiblemente han de ser admitidos en tales terrenos.

2.- Inclusión en el Estudio de ECIA de documentación cartográfica reflejando las medidas protectoras, correctoras y compensatorias y las actuaciones de restauración y mejora ambiental que contemplan las Normas Subsidiarias, al objeto de cumplir con lo establecido en el Decreto 183/2003.

3.- Consideración de los Paisajes Singulares y Sobresalientes como Condicionante Superpuesto.

4.- Consideración de los Corredores Ecológicos como Condicionante Superpuesto.

5.- Inclusión en los planos de Condicionantes Superpuestos en el Suelo No Urbanizable del trazado de la Vía Verde del antiguo ferrocarril Vasco-Navarro en su tramo comprendido entre la balsa de Ullibarri-Jauregi y el puerto de Guereñu.

6.- Adaptación del Plan de Vigilancia Ambiental al contenido que según el Decreto 183/2003 deben recoger los Programas de Supervisión de los Estudios de ECIA de documentos de planeamiento.

C.- El Servicio de Montes ha emitido un informe referente a los montes de utilidad pública mediante el que, como aspectos que tienen carácter vinculante, manifiesta que:

1.- Según la delimitación del Suelo Urbano del núcleo de Narbaiza, se ha invadido el monte de Utilidad Pública nº 630, “Monte Alto y Ascorzana”, en una parcela en su extremo sur que ha sido calificada de “Espacios libres de uso y dominio público” dentro del recinto de suelo urbano, por lo que deberá ser excluida de tal delimitación.

2.- Se observa que buena parte de la superficie catalogada de dominio público forestal, incluso la roturada, de la propiedad de las entidades locales se ha clasificado en la categoría 4 “Zona agroganadera y campiña” y que debe ser clasificada como “Zona Forestal”, cuando no fuera incluida en las zonas de “Especial Protección” o de “Mejora Ambiental”, a tenor de su régimen jurídico.

D.- En lo que se refiere a la Red Foral de Carreteras se tendrá en cuenta lo siguiente:

1.- Los cierres de las parcelas se situarán a estas distancias:

a.- Red de Interés Preferente: a más de 25,00 m. de la arista exterior de la calzada

b.- Red Básica: a más de 12,50 metros de la arista exterior de la calzada

c.- Red Comarcal: a más de 10,00 metros de la arista exterior de la calzada

d.- Red Local: a más de 8,00 metros de la arista exterior de la calzada

e.- Red Vecinal: a más de 8,00 metros del eje de la carretera

En todos los casos, con independencia del tipo de red que se trate, los cierres de parcela siempre se dispondrán fuera de la Zona de Dominio Público (obtenida conforme a lo establecido en la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava), debiendo prevalecer, por lo tanto, la condición que resulte más restrictiva entre ésta, y la distancia que le corresponda de las relacionadas previamente.

2.- Dentro de los usos y actividades autorizados en la zona de protección de las comunicaciones viarias de la Normativa Urbanística, deberá establecerse de manera clara y expresa que la autorización para todos esos usos y actividades está condicionada al cumplimiento de la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava, atendiendo a lo que en ésta se establece para cada una de las zonas de policía en que se pueda estar en cada caso, cuando la zona de protección se refiera a una carretera de la Red Foral.

3.- En los planos correspondientes a “Estructura general y orgánica del territorio” deberá representarse la línea límite de edificación a ambos lados de cada una de las carreteras de la Red Foral, conforme establece la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava.

**III. Kultur ondare higiezinaren babesa lurzoru mota guztietan.**

A.- Donemiliagako udal mugartean Santiago Done Jakue Bidea monumentu multzo gisa sailkatuta dago, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren arabera (otsailaren 11ko 29. zk.dun EHAA). Honako elementu hauek bideari lotuta daude: Luzuriaga zubia, Zubibarri zubia, Galarretako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza, Luzuriagako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza, Mezkiako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza, Erdoñanako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza, Erdoñanako San Millan Baseliza, Durrumako San Roman eliza.

Horietako bakoitzak babes maila jakin bat dauka bidearen kalifikazioari buruzko dekretuaren babes araudian. Beraz, inguruabar hori agerrarazi beharko da Arau Subsidiarioen katalogoan, eta kalifikazioari buruzko dekretuan elementu horietarako ezarrita dauden eraikuntzako esku hartzeak azaldu beharko dira.

